



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Espediente zk./Nº expediente: 2023ZBAR0009

Gaia/Asunto: Errenteriako Udalaren Agintaldirako Plana 2023-2027/Plan de Legislatura 2023-2027 del Ayuntamiento de Errenteria

Dekretu zk./Nº Decreto: 2995

JAKINARAZPENA

Udal Tokiko Batzarrak, 2023ko azaroaren 28ko ezohiko batzarrean, besteak beste, akordio hau hartu zuen, betiere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:

ERABAKIA

1. 2023-2027 Agintaldi Planaren onarpena. (2023ZBAR0009)

Errenteria 2025 Plan Estrategikoan jasotakotik abiatuta eta gobernu taldeak agintaldi honetarako dituen helburu estrategikoak aintzat hartuta 2023-2027 Agintaldi Plana prestatu da. Tresna honen bitartez gobernu-taldeak agintaldiko lau urteetarako bere ekintza politikoa antolatu du, xede izanik herritarrek nahiz erakundeak bat egitea helburu orokorrarekin. Sail eta departamentu desberdinetako arduradun tekniko desberdinekin batera osatu den dokumentua da.

Gure erakundeak urte batzuk daramatza udal administrazioaren bisio zehatz baten gainean lanean, hain zuzen ere, herritarra ardatz hartuta udal antolaketa eta kudeaketa kalitatezko zerbitzu publikoetara bideratzen doan udal administrazioarena, etengabeko hobekuntza baten esparruan. Baieztatzen dugu administrazio publiko eredu berri baten inguruan sakontzearen beharra, garai eta egoera berriei aurre egiteko gai izango dena. Eta hori gauzatzeko ahaleginean ari gara.

NOTIFICACIÓN

La Junta de Gobierno Local en sesión extraordinaria de fecha 28 de noviembre de 2023 adoptó, entre otros, a reserva de los términos que resulten de la aprobación del acta correspondiente, el siguiente acuerdo:

ACUERDO

1. Aprobación del Plan de Mandato 2023-2027. (2023ZBAR0009)

Resultando que partiendo del Plan Estratégico Errenteria 2025 y los objetivos estratégicos del equipo de gobierno para el presente mandato se ha elaborado el Plan de Mandato 2023-2027 como instrumento mediante el cual el equipo de gobierno ha planificado su acción política para estos cuatro años de mandato, con el objetivo de identificar y compartir sus objetivos tanto con la ciudadanía como con la organización. Se trata de un documento que se ha elaborado junto con el personal técnico responsable de las diferentes áreas y departamentos municipales.

Nuestra organización lleva unos años trabajando con una visión sobre la administración municipal, en la que tomando a la ciudadanía como eje, va encaminando la organización y gestión municipal hacia servicios públicos de calidad, en el marco de una mejora continua. Nos reafirmamos en la necesidad de profundizar en el nuevo modelo de administración pública que estamos intentando implementar de manera que sea capaz de hacer frente a nuevos tiempos y situaciones.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Azken urte hauetan neurriak hartzen ari gara Errenteriako Udala administrazio publiko eraginkor batean bilakatu ahal izateko, herritarren beharrak asetzeko gai izango dena, gardentasuna, hurbiltasuna eta eraginkortasuna oinarri.

Helburu hori lortzeko 2015-2019 agintaldian prozesu bat jarri zen abian, eta lehenengo pausoa arduradun politiko eta teknikoez osatutako zuzendaritza talde bat sortzea izan zen, beste hiru Koordinazio talderekin batera. Hauen xedea udal kudeaketari dagokion jarduera guztia zuzendu eta koordinatzea izanik. Aldi berean, udalaren jarduera guztia hiru arloetan integratzea erabaki zen, Antolaketa, Lurraldea eta Herritarren arloetan, ordurarte udalean zeuden sail eta departamentuak hiru arlo horietan integratuz koordinazio ondorioetarako, arlo bakoitzari Koordinazio talde bat egokituz. Aurrekoarekin bat eginez udaleko batzorde informatiboen egitura sinplifikatu zen, hiru iraunkorretara gutxituz, eta koordinazio arlo bakoitzari batzorde informatibo bat egokituz. Egitura hau aurreko eta oraingo agintaldian mantendu da.

Udalaren kudeaketan, oro har, gorabeherak, arazoak eta larrialdiak gertatzen dira etengabe. Herritarren hurbiltasunak eragiten du hurbil izatea baita ere galdetzeko beraien gai zehatzen berri. Gutxieneko batzuk antolatzen ez badira, egunerokotasunak markatzen du antolamenduaren norabidea, tokiko gobernu baten ezaugarri diren helburu politikoak alde batera utzita.

Bestalde, ekintza orientatzen duten helbururik gabe, Udalaren antolamendua sakabanatu egiten da eta departamentalizaziora eramaten duten dinamikak indartzen dira, independenteki jarduten diren antolamenduetara, horrela eraginkortasuna murriztu eta herritarren beharrei era integrean erantzuteko

Estos últimos años venimos adoptando medidas para convertir el Ayuntamiento de Errenteria en una administración eficaz, capaz de satisfacer las necesidades de la ciudadanía, tomando como base la transparencia, la cercanía y la eficacia.

Para dicho fin, en el mandato 2015-2019 se puso en marcha un proceso en el que el primer paso fue formar un grupo de dirección formado por personal político y técnico, junto con otros tres grupos de coordinación. Su objetivo era dirigir y coordinar toda la actividad relativa a la gestión municipal. Asimismo, se decidió integrar toda la actividad municipal en tres ámbitos (Organización, Territorio y Ciudadanía), integrando a su vez las áreas y departamentos del Ayuntamiento en esos tres ámbitos en lo que a la coordinación se refiere y se estableció un grupo de coordinación para cada ámbito. Unido a todo ello, se simplificó la estructura de las comisiones informativas, pasando a crear tres comisiones informativas permanentes, y asignando a cada ámbito de coordinación una comisión informativa. Toda esta estructura se ha mantenido en el anterior y en el presente mandato.

Considerando que la gestión municipal en general vive inmersa en un devenir continuo de incidencias, problemas y urgencias. La cercanía a la ciudadanía conlleva que también la tengamos cerca para preguntar por sus asuntos concretos. Sin una mínima planificación el día a día acaba siendo quien marca el rumbo de la organización, arrinconando los objetivos políticos que caracterizan a un gobierno local.

Por otra parte, sin unos objetivos que orienten la acción, la organización municipal se dispersa y se fortalecen las dinámicas que llevan a la departamentalización, a silos organizativos que actúan de manera independiente, en vez de fomentar la transversalidad, disminuyendo la eficiencia y limitando



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

gaitasuna mugatuta.

Aurreko guztiarekin bat eginez helburuak lortzea xede duen plangintza garatu eta aurreratzea eta urteko Kudeaketa Planean eta udal-aurrekontuan islatzea egokia ikusten da.

Zuzendaritza taldeak eta baita hiru arloetako koordinazio taldeek landu duten lehen erronka Agintaldi Plana definitzea izan da. Gobernu taldeak teknikariei aurkeztutako planifikazioa oinarri hartuta aipatutako dokumentuan agintaldi bukaera arteko helburu estrategikoak definitu dira. Aldi berean, helburu horietatik eratorritako ekintza zehatzak ere identifikatu dira, arduradun politiko eta teknikoak eta epe luzeko plangintza ekonomiko batean kokatu dira.

Hala eta guztiz ere, ez da Udalak burutuko duen ororen bilduma huts bat, baizik helburu estrategiko handiak lortzeko eragin handia duten ekintzena soilik. Gainerako helburu eta ekintzek espazio bat aurkitu behar dute dagokien departamentuko zuzendaritza-organoetan kudea ditzaten.

Agintaldi-plan hau, kudeaketa dokumentua den heinean, erabilgarria da gobernu-taldearentzat, aukera ematen duelako herritarrek babestu zuten hauteskunde-programa gobernu-programa bihurtzeko, bete nahi diren helburuak lortzeko beharrezko ekintzen jarraipena egiteko; ziurgabetasuna gutxitzen du eta erakundearenganako eta herritarrenganako komunikazioa errazten du. Erakundearentzako

la capacidad de responder integralmente a las necesidades de la ciudadanía.

En concordancia con lo expuesto resulta idóneo desarrollar y avanzar con la planificación encaminada a la consecución de objetivos y plasmarla en el correspondiente Plan de Gestión anual y presupuesto municipal.

El primer reto de planificación acometido en el presente mandato, tanto por el grupo de dirección, como por los grupos de coordinación de los tres ámbitos, ha sido elaborar el Plan de Mandato. Partiendo de la base de la planificación que el equipo de gobierno presentó al personal técnico en dicho documento se han definido los objetivos estratégicos. A su vez, se han identificado acciones concretas derivadas de todo lo mencionado, así como responsables políticos y técnicos, y se han situado en el marco de una planificación económica a largo plazo.

Sin embargo, no es una mera recopilación de todo lo que el Ayuntamiento va a realizar, sino exclusivamente de aquellas actuaciones que impactan de manera significativa en el logro de los grandes objetivos estratégicos. El resto de objetivos y actuaciones han de encontrar espacio para su gestión en los órganos de dirección departamental que les corresponda.

El presente Plan de Mandato, en cuanto documento de gestión, resulta de utilidad para el equipo de gobierno en cuanto que permite transformar el programa electoral que respaldó la ciudadanía en un programa de gobierno, le permite realizar un seguimiento de las acciones necesarias para el logro de los objetivos que se persiguen, reduciendo la incertidumbre y facilita la comunicación tanto hacia la organización como hacia la ciudadanía. La utilidad que presenta para la



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

baliagarritasuna da argitzen duela agintaldirako marko estrategikoa eta errazten duela lehentasunak identifikatzea. Azkenik, herritarrentzat ere erabilgarria da, gardentasuna areagotzen duelako eta aukera ematen duelako udal-gobernuaren estrategia identifikatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeek Legeak, besteak beste, berariaz aitortzen du toki-erakundeek ahalmena dutela plangintza eta programazioa burutzeko oro har, nahiz eta indarreko legerian aurreikusita dagoen udalen eskumen-sistema osoa Agintaldi Planak biltzen dituen ekintzei eta proiektuei aurre egiteko.

Idazkari akzidentalak aldeko txostena eman du.

Alkateak Agintaldi Planaren azalpenak jasotzen duen dokumentu bat idatzi du.

Alkateak egindako erabaki-proposamena, eta Idazkari akzidentalak espedienteen jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengo.- 2023-2027 Agintaldi Plana onartzea.

Bigarren.- Betetzea Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko

organización se traduce fundamentalmente en que clarifica el marco estratégico en el que se va a desarrollar el presente mandato y facilita la identificación de prioridades. Por último también es útil para la ciudadanía puesto que aumenta la transparencia y permite identificar la estrategia del gobierno municipal.

La Ley de Instituciones Locales de Euskadi, entre otras, reconoce entre las potestades de las entidades locales expresamente las de planificación y programación en general, sin perjuicio de todo el sistema competencial municipal previsto en la legislación vigente para poder acometer las acciones y proyectos que recoge el Plan de Mandato.

La Secretaria accidental ha emitido informe favorable.

La Alcaldesa ha redactado un documento explicativo del Plan de Mandato.

Vista la propuesta de acuerdo de la Alcaldesa y la conformidad dada por la Secretaria accidental a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

En ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

Primero.- Aprobar el Plan de Mandato 2023-2027.

Segundo.- Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia,



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean publizitate aktiboaren inguruan xedatutakoak, Agintaldi Plana udalaren web-orrian argitaratuta.

Hirugarren.- Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea Udaleko sail eta departamentuei; Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak arloei; Koordinazio Gune Orokorra taldeari eta, bereziki, arduradun politiko eta teknikoei, jakinaren gainean egon daitezten eta bete ditzaten.

Laugarren.- Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea gainerako udalkideei, egoki diren ondorioetarako; horretarako, hurrengo Udalbatzan emango da berri.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsu.

NON: dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegia.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en lo que se refiere a la publicidad activa publicando el Plan de Mandato en la página web municipal.

Tercero.- Poner en conocimiento de las áreas y departamentos municipales, de los ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía, del grupo denominado Ambito de Coordinación General y especialmente de las y los responsables políticos y técnicos el presente acuerdo y el documento aprobado para su conocimiento y cumplimiento.

Cuarto.- Poner en conocimiento del resto de corporativos el presente acuerdo y el documento aprobado a los efectos oportunos dando cuenta del mismo al Pleno del Ayuntamiento en la primera sesión que celebre.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo, y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.

LUGAR: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente.

PLAZO: en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su notificación.

No obstante, con caracter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la



**ERRETERIA
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

presente notificación.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Idazkari akzidentala / Secretaria accidental

Begoña Bueno Barranco



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU4f78f718-facb-482b-818e-29cea4513618**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZBAR0009-JAKINARAZPENA/NOTIFICACIÓN (ERRETERIAKO UDALA)

ERRENTERIAKO UDALA

Alkatetza

**AYUNTAMIENTO DE
ERRENTERIA**

Alcaldía

ERRENTERIA 2023-2027 AGINTALDIRAKO PLANA	PLAN DE MANDATO ERRENTERIA 2023-2027
1. Sarrera	1. Introducción
<p>Errenteria herri bizia da, azken urteetan eraldaketa handia bizi izan duena. Berezkoa duen izaera hori baliatuz eta sustatuz, 2011-2015 aldirako agintaldian Errenteria 2025 Plan Estrategikoa landu zen Udaletik gidatutako parte hartzeko prozesu zabal baten bidez. Errenteria 2025 dokumentu hartan herritarrek eta eragileek elkarrekin egindako gogoeta eta proposamenak jaso ziren eta dokumentu hura giltzarri izan da ordutik hona logika publiko-komunitarioa artikulatuz eragin den herriaren bilakaera ahalbidetzeko.</p>	<p>Errenteria es un pueblo vivo, que en los últimos años ha experimentado una gran transformación. Aprovechando e impulsando el carácter que le es propio, en el mandato 2011-2015 se elaboró el Plan Estratégico Errenteria 2025, a través de un amplio proceso de participación liderado desde el Ayuntamiento. En el documento Errenteria 2025 se recogieron las reflexiones y propuestas realizadas conjuntamente por la ciudadanía y los agentes, y dicho documento ha resultado clave desde entonces para posibilitar la evolución de Errenteria generada a través de la articulación de una lógica público-comunitaria.</p>
<p>Errenteria 2025 Plan Estrategikoa iparrorratz gisa hartuta, eta Udalean ditugun aholku-kontseilu eta lanmahai sektorialetan, zein auzoetako bileretan jasotako ekarpen eta proposamenak kontuan hartuta, 2019-2023 Agintaldirako Plana landu eta onartu zen pasa den agintaldiaren hasieran. Eta, agintaldia aurreikusi gabeko pandemia batek asko baldintzatu duen arren, Agintaldirako Plana ezinbesteko tresna izan da gure agintaldiko bide-orria zehazteko. Gainera, 2019-2023 agintaldia amaitu den honetan esan dezakegu bere garapena oso altua izan dela, %80a inguru garatu baita.</p>	<p>Con el rumbo que nos marcaba el Plan Estratégico Errenteria 2025, y teniendo en cuenta las aportaciones y propuestas recabadas tanto en los diferentes consejos asesores y mesas sectoriales municipales, como en las reuniones con los barrios, al inicio de la pasada legislatura se elaboró y aprobó el Plan de Mandato 2019-2023. Y pese a que el anterior mandato ha estado fuertemente condicionado por una pandemia imprevista, dicho Plan de Mandato ha constituido una herramienta esencial para definir la hoja de ruta de nuestro mandato. Además, una vez finalizada la legislatura 2019-2023, constatamos que su grado de cumplimiento ha sido muy alto, puesto que se sitúa en torno al 80 %.</p>
<p>Aurreko agintaldian egindako bidearen ildotik eta logika berdinetik, 2023-2027 aldirako ere Agintaldirako Plan bat ondu dugu, indarrean den laurtekoarentzako Gobernu Taldearen asmoak jasotzen dituen eta udaleko departamentuen kontraste teknikoa duena.</p>	<p>En la misma línea del camino recorrido en la anterior legislatura, y en la misma lógica, hemos elaborado también un Plan de Mandato para el período 2023-2027, que recoge las intenciones del Equipo de Gobierno para el actual cuatrienio, y que cuenta con el contraste técnico de los departamentos municipales.</p>
<p>Izan ere, lanketa-prozesuari dagokionez, plano politikoaren zein teknikoaren arteko lankidetzaren bidez ondutako dokumentua dela nabarmendu behar da: Gobernu Taldeak bere ekimen politikoaren bidez proposatutako dokumentuari, udal-teknikarien kontrastearen eta ekarpenaren bidez eman baitzaio bideragarri izan dadin beharrezkoa duen zehaztapena.</p>	<p>De hecho, en lo que respecta al proceso de elaboración del Plan, cabe destacar que se trata de un documento fruto de la cooperación entre el plano político y el técnico, ya que el documento propuesto por el Equipo de Gobierno a través de su impulso político, se ha dotado de la concreción necesaria para que fuera viable mediante el contraste y las aportaciones del personal</p>

	técnico municipal.
Lanketa hori egiteko udal-antolaketaren baitako lanerako espazioak baliatu dira: hiru eremuetako koordinazio taldeak (Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak) eta Koordinazio Gune Orokorra. Lanketa prozesua ixteko, Agintaldirako Plana onartua izan aurretik, beste bi urrats ere aurreikusita ditu: dokumentua oposizioko alderdiekin partekatzea eta behar diren azalpenak ematea, eta ekitaldi publiko batean herritar eta eragileei aurkeztea.	Dicho contraste se ha realizado en los espacios de trabajo de la organización municipal: los grupos de coordinación de los tres ámbitos (Organización, Territorio y Ciudadanía), y el KGO, Espacio de Coordinación General. Como cierre de este proceso de elaboración, antes de la aprobación del Plan de Mandato, están previstos otros dos pasos: compartir el documento con los partidos de la oposición, con todas las explicaciones necesarias, y presentarlo a la ciudadanía y agentes en un acto público.
Agintaldi Planaren lanketan, politika publikoak lantzeko garaian erreferentziazkoak izan daitezkeen bestelako plangintza-marcoak ere hartu ditugu aintzat, horren adibide, NBEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Helburuak txertatu izana.	En la elaboración del Plan de Mandato también hemos tomado en consideración otros marcos de planificación que pueden servir de referencia a la hora de desarrollar políticas públicas, de ahí por ejemplo la incorporación al Plan de los Objetivos de la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible aprobada por la ONU.
2030 Agenda Nazio Batuen esparruan lortutako akordioa bat da, 2030ean mundu bidezkoago, ekologiko, oparago eta baketsuago bat izaten lagunduko duten Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) erdiesteko proposamena luzatzen diguna erakunde-maila guztiei. Gonbidapena horri erantzunez, gure Agintaldirako Plana garapen jasangarriago baten aldeko Nazio Batuen Agendarekin ere lerrokatu dugu.	La Agenda 2030 es un acuerdo alcanzado en el seno de las Naciones Unidas que nos propone a todos los niveles institucionales la consecución de 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) que contribuyan a un mundo más justo, ecológico, próspero y pacífico en 2030. En respuesta a esta invitación, también hemos alineado nuestro Plan de Mandato con la Agenda de las Naciones Unidas para un desarrollo más sostenible.
2. Helburuak	2. Objetivos
Agintaldirako Planak bi helburu zehatz ditu:	El Plan de Mandato tiene dos objetivos concretos:
<ul style="list-style-type: none"> • Gobernu Taldeak herritarrekin agintaldirako zein konpromiso hartzen dituen zehatz adieraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Detallar de manera pormenorizada los compromisos con la ciudadanía adoptados por el Equipo de Gobierno para este mandato.
<ul style="list-style-type: none"> • Udal-teknikari eta langileei agintaldirako bide-orri bat eskaintzea, datozen lau urteetarako jardunaren norabidea argi zehaztuko duena eta, era berean, udalaren menpeko diren baldintza eta faktoreei dagokienez, egingarri ikusten dena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ofrecer al personal técnico municipal y al personal del Ayuntamiento en general, una hoja de ruta para el mandato, que marque para los próximos cuatro años un rumbo de actuación nítido, que al mismo tiempo se considere factible en relación con las condiciones y factores dependientes del Ayuntamiento.
Zeharka, bestelako helburu hauek ere erdietsi nahi ditu Agintaldirako Planak:	De forma transversal, el Plan de Mandato persigue también los siguientes objetivos:

<ul style="list-style-type: none"> • Garatu nahi den udalgintzaren komunikazioa eta gardentasuna bermatzea, herritarren eta udal-langileen espektatibak neurrituz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Garantizar la comunicación y transparencia en la acción municipal, dimensionando las expectativas de la ciudadanía y el personal municipal.
<ul style="list-style-type: none"> • Garatu nahi den udalgintzaren inguruan udaleko lantaldea lerrokatzeko baldintzak sortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Crear las condiciones para alinear al equipo municipal en la acción municipal que se quiere llevar a cabo.
<ul style="list-style-type: none"> • Departamentu bakoitzak garatu beharreko politikez harago, garatu nahi den strategiaren inguruko begirada osoa eta integrala ahalbidetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Posibilitar que cada departamento, más allá de las políticas que le competen, tenga una visión completa e integral de la estrategia que se quiere desarrollar.
<ul style="list-style-type: none"> • Helburuen betetze-mailaren segimendua erraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Facilitar el seguimiento del grado de cumplimiento de los objetivos.
Hau esanda, garrantzitsua da nabarmentzea Agintaldi Plana ez dela Udalak agintaldi honetan zehar burutu beharreko lanaren isla osoa, udal-jarduera askoz ere zabalagoa baita.	Dicho esto, es importante destacar que el Plan de Mandato no abarca la totalidad de la labor a realizar por el Ayuntamiento, puesto que la actividad municipal es mucho más amplia.
Agintaldirako Planak Gobernu Taldeak garatu nahi duen udalgintza estrategikoaren agenda publikoa jasotzen du. Horrek esan nahi du, departamentu bakoitzaren urteko plangintzak hiru eginkizun-mota jasoko dituela:	El Plan de Mandato es el documento que recoge la agenda pública de la acción municipal estratégica que quiere llevar a cabo el Equipo de Gobierno, lo que significa que la planificación anual de cada departamento incluirá tres tipos de tareas:
<ul style="list-style-type: none"> • Agintaldirako Planetik eratorritakoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Las iniciativas derivadas del Plan de Mandato
<ul style="list-style-type: none"> • Departamentuaren jardunean garrantzitsuak diren bestelako proiektuak (agenda publikoan hain esanguratsuak ez direnak) 	<ul style="list-style-type: none"> • Otros proyectos relevantes en la actividad del departamento, pero no tan significativos en la agenda pública.
<ul style="list-style-type: none"> • Departamentuaren ohiko jarduna 	<ul style="list-style-type: none"> • La actividad ordinaria del departamento.
<p>3. 2023-2027 Agintaldirako Planaren ezaugarri nagusiak</p> <p>Errenteria 2023-2027 Agintaldi Planak 3 helburu tronkal eta transbertsal bat, eta 9 erronka jasotzen ditu:</p> <p>1. Herri duinagoa</p> <p>1.1. ZAINZAILEAGOA</p> <p>1.2. BERDINZALEAGOA</p> <p>1.3. INKLUSIBOAGOA</p>	<p>3. Principales características del Plan de Mandato 2023-2027</p> <p>El Plan de Mandato Errenteria 2023-2027 contempla 3 objetivos troncales, 1 objetivo transversal, y 9 retos:</p> <p>1. Un pueblo más digno</p> <p>1.1. MÁS CUIDADOR</p> <p>1.2 MÁS IGUALITARIO</p> <p>1.3 MÁS INCLUSIVO</p>

<p>2. Herri kohesionatuagoa</p> <p>2.1. EKIPAMENDU GEHIAGOREKIN</p> <p>2.2. DINAMIKA ABERATSAGOAREKIN</p> <p>3. Herri bizigarriagoa</p> <p>3.1. AUZO BIZIAGOAK</p> <p>3.2. HERRI JASANGARRIAGOAK</p> <p>3.3. HERRI SEGURUAGOAK</p> <p>4. Gobernantza partekatuagoa</p> <p>4.1. GOBERNATZA PARTEKATUAGOAK</p>	<p>2. Un pueblo más cohesionado</p> <p>2.1 CON MÁS EQUIPAMIENTOS</p> <p>2.2. CON UNA DINÁMICAS MÁS RICA</p> <p>3. Un pueblo más habitable</p> <p>3.1. BARRIOS MÁS VIVOS</p> <p>3.2 UN PUEBLO MÁS SOSTENIBLE</p> <p>3.3 UN PUEBLO MÁS SEGURO</p> <p>4. Una gobernanza más compartida</p> <p>4.1 UNA GOBERNANZA MÁS COMPARTIDA</p>
<p>Eta, hezurdura horren baitan, agintaldirako 62 proiektu barnebiltzen ditu, proiektu bakoitzarentzako honako informazioa jasotzen delarik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lidergoa zein departamenturi dagokion • Zein beste sail dauden proiektuak eraginda • Zein urte(e)tan garatu behar den • Zenbateko aurrekontua behar duen (beharko balu) • Proiektuek GJHekin duten lotura, alegia, proiektuaren garapenak GJHren zein helburu sustatzen dituen. 	<p>Sobre esta columna vertebral se asientan 62 proyectos de mandato, para cada uno de los cuales el plan aporta la siguiente información:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Departamento al que corresponde liderar el proyecto • Otros departamentos implicados en el proyecto • Año(s) en que se desarrollará • Presupuesto, en caso de ser necesario • Relación de cada proyecto con los ODS, es decir, qué objetivos ODS se promueven con el desarrollo del proyecto.
<p>4. Agintaldi Planaren onarpena eta hedapena</p>	<p>4. Aprobación y difusión del Plan de Mandato</p>
<p>Errenteria 2023-2027 Agintaldi Plana 2023ko azaroaren 28an ospatuko den Tokiko Gobernu Batzordearen bileraren gai-ordenean txertatuko da, bertan ontzat eman dadin. Jendaurreko aurkezpen-ekitaldia, berriz, azaroaren 24an egingo da.</p>	<p>El Plan de Mandato Errenteria 2023-2027 se incluirá para su aprobación en el orden del día de la sesión que celebrará la Junta de Gobierno Local el día 28 de noviembre de 2023. Previamente se dará a conocer públicamente en el acto de presentación que tendrá lugar el 24 de noviembre.</p>
<p>Bestalde, bere hedapenerako, Agintaldi Planaren laburpena eta proiektu esanguratsuenak jasotzen dituen liburuxka osatu da eta 17.500 kopia inprimatuko dira. Agintaldi Planaren dokumentu osoa</p>	<p>Además, se ha preparado para su difusión un libreto resumen del Plan de Mandato con los proyectos más significativos, del que se imprimirán 17.500 copias. El documento completo del Plan de Mandato estará</p>

ERRETERIAKO UDALA

Alkatetza

AYUNTAMIENTO DE**ERRETERIA**

Alcaldía

udalaren webgunean kontsultagarri egongo da behin Tokiko Gobernu Batzordean onartuta.	disponible para su consulta en la página web municipal una vez aprobado en la Junta de Gobierno Local.
Baina, publikoki aurkeztu eta Tokiko Gobernu Batzordean onartu aurretik, Agintaldi Planaren nondik norako nagusiak oposizioarekin partekatuko dira, azaroaren 23an egitekoa den bozeramaileen batzordean.	No obstante, antes de su presentación pública y aprobación en Junta de Gobierno Local, las líneas principales del Plan de Mandato se darán a conocer a la oposición en la Junta de Portavoces prevista para el próximo día 23 de noviembre.
5. Agintaldi Planaren garapen eta segimendua	5. Desarrollo y seguimiento del Plan de Mandato
